



Nuevo Plan General de Ordenación Urbana

LEGAZPIKO HAPO BERRIAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

Legazpiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra



**LEGAZPIKO
UDALA**

TERRITORIO  CIUDAD SLP
TAPER

AURKIBIDE

1.	SARRERA ETA ERREFERENTEAK	5
2.	LEGAZPIKO HAPO BERRIAREN HIRI- ETA LURRALDE-EREDUA DEFINITZEKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA JARDUKETAK IDENTIFIKATZEA	7
1º.	HELBURU ESTRATEGIKOA: HIRI-EREDU TRINKO, KONPLEXU ETA KOHESIONATUA HARTZEA	7
2º.	HELBURU ESTRATEGIKOA: UROLA GARAICO EKONOMIA AKTIBATZEN ETA UDALERRIKO EKONOMIA DIBERTSIFIKATZEN LAGUNTZEA	9
3º.	HELBURU ESTRATEGIKOA: LEGAZPIKO NATURA, LANDA, KULTURA ETA PAISAIA ONDAREARI BALIOA EMATEA	10
4º.	HELBURU ESTRATEGIKOA: LURRALDE JASANGARRI ETA ENERGETIKO ERAGINKORRA BULTZATZEA	12
5º.	HELBURU ESTRATEGIKOA: LEGAZPI PERTSONA GUZTIENA ETA GUZTIENTZAT IZAN DADIN BULTZATZEA (ZEHARKAKO HELBURUA).	14



SARRERA ETA ERREFERENTEAK

16 urte igaro dira Legazpiko egungo plangintza orokorra onartu eta indarrean sartu zenetik. Aldi horretan, plangintza horren formulazioa inspiratu zuen errealtate ekonomiko eta sozialak bilakaera sakona izan du, eta, horrez gain, lurraldearen antolamendu- eta hirigintza-politikak arautzen dituen lege-esparrua ere nabarmen aldatu da. Lege-esparru horrek, egitura formalean ez ezik, plangintza orokor baten funtsezko edukian ere eragiten du.

Adibidez, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berriek zuzenean eta zeharka aplikatzeko jarraibide ugari zehazten dituzte hirigintza-plangintzarako, espazioaren antolamenduari eta erabilerari dagokienez. Gidalerro horiek dokumentu honen beste atal batzuetan aipatu dira, eta, funtsean, honako hauei lotuta daude:

1. Ingurune fisikoaren antolamendua.
2. Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuak.
3. Hiri-berroneratzea.
4. Hiri-hazkudearen gehieneko perimetroa mugatzea.
5. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua zehaztea.
6. Bizitegi-kuantifikazio handiena zehaztea.
7. Udalerri mugakideen plangintzak bateragarri egitea.
8. Ura eta energia.
9. Ekonomia zirkularra: hondakinen kudeaketa, eta lurzoria baliabide gisa.
10. Lurraldean eragina duten zeharkako gaiak: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-erlazioa.

Eta, azkenik, aipatzekoa da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren agindu bidez onartutako Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050, zeinaren helburu orokorra hirirako eskubidea den, trantsizio ekonomiko, sozial, ingurumeneko eta teknologikoko testuinguru batean baliatzeko baldintzak bermatuz. Hirirako eskubideak hiri-espazioaren kalitatearen aldeko apustua egiten du, osotasun integral gisa ulertuta, bertan bizi, lan egin, gozatu eta elkarrekin bizitzeko. Eta, horretarako, 8 lehentasun estrategiko zehazten ditu, 31 esku-hartze ardatzetan eta 105 jarduera-ildotan egituratzen direnak. Lehentasun horiekin batera, 5 zeharkako dimentsio daude, honako hauekin lotuta: agendaren maila anitzeko gobernantzarekin, genero-ikuspegiarekin, jardueren integraltasunarekin, lurraldearen ikuspegiarekin eta jarraipenaren eta ebaluazioaren aldeko apustuarekin.

Hauk dira Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren 8 lehentasun estrategikoak:

1. Etxebizitzarako eskubidea eta oinarrizko ekipamenduak sustatzea. Gizarte-kohesiorako zuzkiduren beharra.
2. Mugitzen ari diren hiriak: mugikortasun berri baten alde. Garraio publiko intermodal batengatik.
3. Hiri-plangintzako eredu jasangarri berri bat. Hiri trinkoak.
4. Hiri berritzaileak eta jakintsuak. Berrikuntza, pertsonengandik eta pertsonentzat.

5. Hiri dinamikoak eta lehiakorrak. Jarduera ekonomikoa duten hiriguneak.
6. Hiri iraunkorrak eta erresilienteak. Klima-aldaketaren aurkako hiriak.
7. Bizi-kalitatean oinarritutako hiriak. Bizi-kalitatearen aldeko apustua.
8. Aniztasuna eta inklusioa nortasun-ikur gisa. Zentroko pertsonak eta komunitateak.

Beraz, proposatzen da Legazpin Plan Orokor berria hedatu beharreko hiri- eta lurralde-politika aurreko gidalerro guztiek bideratzea, ondoren garatuko diren antolamendu-printzipio, -irizpide eta -helburuen arabera antolatuta.

LEGAZPIKO HAPO BERRIAREN HIRI- ETA LURRALDE-EREDUA DEFINITZEKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, ANTOLAMENDU-IRIZPIDEAK ETA JARDUKETAK IDENTIFIKATZEA



1º. HELBURU ESTRATEGIKOA

Hiri-eredu trinko, konplexu eta kohesionatua hartzea

2019 LAGek eta Euskal Hiri Agendak hiria berroneratzearen eta dagoen hiria dentsifikatzearen aldeko apustua egiten dute, eraikuntza berrien garapenaren aurrean. Bereziki, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren 2. Lehen tasun Estrategikoa da hiri-sakabanaketa saihesteko eta dagoen hiria biziberritzeko helburu espezifikoak garatzea. Horrek esan nahi du lurzorua erabilera dibertsifikatua, hiri-berrikuntza eta iraunkortasuna plangintza-irizpide gisa hartuko dituen, eraikitakoaren erabilera sustatuko duena eta harreman sozial eta ekonomikoen hurbiltasunaren aldeko apustua egingo duena. Eta horrek esan nahi du emaitza orekatua izango dela, eta, hala dagokionean, lurzoru okupatzeko eta eraldatzeko prozesuak erraztuko direla dentsitate egokiekin, betiere erabilera bateragarriak konbinatuz, batez ere, auzo-eskalan.

Bestalde, gizarte-kohesioa ezinbesteko faktorea da hiri-sistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko. Horretarako, arrazoizko prezioan etxebizitza-parke egoki bat egotea sustatu behar da, lurraldean bereizketa espaziala eta desberdintasun sozialak saihestuz, eta ekipamendu kolektibo publikoen eskaintza egokia sortuz.


Ondorioz, Legazpiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak helburu hau hartu behar du bere gain: erabiltzen ez diren edo degradatuta dauden lurzoru eraldatuak berritzeari lehentasuna ematea, eta hiri-bilbe osatugabeak finkatzea, urbanizazio berria sortzeko edo guneak zabaltzeko prozesuen aurrean.

Era berean, hiri-egitura berriak eta daudenak planteatu behar ditu, dentsitatean, hirikalitatean, konplexutasunean eta erabileren nahasketan oinarritutakoak, espazio bereziak, hutsalak, unitate bakarrekoak eta ibilgailu pribatuaren mendekoak ugaritzea mugatuz, eta hiri-ehunak garraio kolektiboko eta motorrik gabeko garraioko sareekin lotuz.

Azkenik, ez da ahaztu behar Plan Orokorrak populazioaren iraupenerako lurralde erakargarri bat eratzeko helburua hartu behar duela, bizi-kalitatea, gizarte-kohesioa eta komunitatearen zentzua sustatuz

ANTOLAMENDU-JARDUERAK ETA -IRIZPIDEAK:

- Bizitegi-erabilera orokorreko jarduera estrategikoen proposamenak:
 - Azpikoetxe. Bertan, industria-pabiloi zaharkitu batzuk birgaitzea proposatzen da, indarrean dagoen plangintzan planteatutako jarduketa (paper-fabrika) berriro mugatuz eta erabat berrantolatuz. Azken horrek, funtsean, Urola ibaiaren ibilbidea ez aldatzea dakar, zuzkidura- eta hirugarren sektoreko erabilera berriak ezartzea ingurunea biziberritzeko eta hiri-zentralitate berri bat sortzeko.
 - Goialde Sur eta Goenaga. Indarrean dagoen plangintzak hiri-lurzoru gisa sailkatuta dauzka, eta hiri-bilbea berroneratzea, birkualifikatzea eta osatzea proposatzen dute, mehelina zigitatuz eta etxebizitza, zuzkidura-eraikin eta berdegune berriak sortuz.
- Jarduera ekonomikoen erabilera orokorreko jarduera estrategikoen proposamenak.
 - Zaldu: herrigune nagusiaren ipar-mendebaldeko ertzean hiri-bilbea osatzeko eragiketa estrategikoa da, jarduera duten industria-pabiloien atzealde batzuen gainean. Horri esker, ingurune horren hobekuntza funtzionalaz gain, bide-ardatz berri bat eratuko da, A-636 errepedetik herriguneko irisgarritasun- eta mugikortasun-sistema eraldatzeko, eta, horrela, egungo hirian mugikortasun jasangarriagoa eratzen laguntzeko.
- Espazio publikoaren bizigarritasuna hobetzera, eraikinetako elementu kolektiboak birgaitzera, lehendik dauden etxebizitzaren energia-hobekuntzara eta irisgarritasuna ziurtatzera bideratutako ekintzak zein auzotan gauzatu behar diren identifikatzea. Hori guztia bateragarria izango da ondare-balioen kontserbazioarekin. Ildo horretan, nabarmentzekoak dira San Inazio, Arantzazu, San Martin eta San Jose auzoak, 2019ko Auzoak Birgaitzeko Plan Berezian jada aipatuak. Gainera, horrelako ekintzak ezarri beharko dira Urtatza, Laubide Pares eta San Juan auzoetan ere.
- Garapen berriak zuzkidura-erreserbak sortzeko eta babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzaren erreserba nahikoak lortzeko aukera ematen duten lekunetan kokatzea; horrela, bizitegi-erabilerarako lurzorua etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidearen eraginkortasunaren zerbitzura egongo dela ziurtatuko da.
- Ekipamenduen eskaintza dibertsifikatua eta multieskalarra proposatzea, auzoetan banaketa orekatua eginez



2º. HELBURU ESTRATEGIKOA

Urola garaiko ekonomia aktibatzen eta udalerriko ekonomia dibertsifikatzen laguntzea

Leipzigeko Gutun Berrian (Hirien botere eraldatzailea guztion onerako, 2020ko azaroaren 30ean), hiri produktiboaren dimentsio ekonomikoa nabarmentzen da, eta “lanpostuak sortuko dituen eta, aldi berean, berrikuntzaren aldeko ingurunean hiri-garapen iraunkorrerako oinarri sendoa emango duen ekonomia dibertsifikatua bermatzea du helburu”.

Euskadiko Hiri Agendak, 4. (Hiri Berritzaile eta Jakintsuak) eta 5. (Hiri Dinamiko eta Lehiakorrak) Lehenetsun Estrategikoei dagokienez, honako helburu espezifiko hauek garatzea proposatzen du: tokiko produktibitatea bilatzea, enplegua sortzea eta jarduera ekonomiko dinamizatzea eta dibertsifikatzea; turismo adimentsua, jasangarria eta kalitatekoa eta tokiko ekonomiaren funtsezko sektoreak sustatzea, eta ezagutzaren gizartea bultzatzea eta hiri adimendunen garapenerantz aurrera egitea.

Gogoeta horietan oinarrituta, Legazpiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek bere gaitasun ekonomikoa indartu nahi du, gizarte-kohesiorako baldintza gisa eta ingurumena eta bere kultura-ondarea zaintzearekin harmonian.

ANTOLAMENDU-JARDUERAK ETA -IRIZPIDEAK:

- Industria-eremu tradizionalen hobekuntza eta biziberritzea sustatzea.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak aurreikustea, lurralde-antolamenduan ezarritakoarekin eta eskualde-bokazioarekin bat etorritik.
- Tokiko eta hurbileko merkataritza dinamizatzea, hiri-eredu ekonomiko jasangarri baten barruan auzoak biziberritzeko eta haien irisgarritasuna bermatzeko, mugikortasun jasangarrian oinarritutako ibilbideak ezarriz.
- Industria- eta natura-ondarearekin eta Inaziotar Bidearekin lotutako turismo-jarduera sustatzea.
- Dauden jarduera ekonomikoen hazkunde-premiei erantzutea.
- Hirigintza-eragiketa estrategikoak mugatzeko eta antolatzeke proposamenak garatzea, hala nola Zaldu, Bellota eta Olaetxe, hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruan, eta Mendiaraz, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruan, Legazpi-Zumarraga ardatzean jada kalifikatutako produkzio-zonak kokatzeko proposamen orekatu baten garapen gisa. Horrela, industria-eremuen hobekuntza eta biziberritzea sustatuko da, ekonomia industrializatzeko helburuarekin.



3º. HELBURU ESTRATEGIKOA

Legazpiko natura, landa, kultura eta paisaia ondareari balioa ematea

Plangintza tradizionalan, lurzorua espazio estanko gisa sailkatzen zen, eta hesi edo lerro bat ezarri zen hiriaren eta landaren artean. Ereditu hori berrikusi egin behar da, bi lurraldeen arteko ikuspegi bateratzaileagoa txertatuz, Legazpiko natura, landa, kultura eta paisaia ondareari maila guztietan balioa ematean oinarrituta.

Argudio hori indartuz, bai 2019ko LAGek, bai Bultzatu 2050 Hiri Agendak ingurumen-sistemaren protagonismoa berrestera bideratutako helburu espezifikoaren multzo bat eskaintzen dute: kultura- eta natura-ondarea kontserbatzea eta paisaia babestea, eta azpiegitura berdeak eta urdinak hobetzea, testuinguru naturalarekin lotuz.

2019ko LAGetan ezartzen denez, eremu babestuak beren ingurumen-balioengatik, korridore ekologikoengatik eta beren lurraldeari eragiten dioten funtzio anitzeko beste espazio batzuegatik mugatu behar dira, eta horietarako erregulazio egokia ezarri behar da; era berean, tokiko azpiegitura berdea sartu behar da, Goierriko Eremu Funtzionalekoarekin eta Euskadikoarekin konektatua. Horien gainean honako printzipio hauek aplikatuko dira: berdeguneen jarraitutasuna; balio ekologikoa zaintzea eta ekosistema-zerbitzuak indartzea, bizikaltatea hobetu eta natura pertsonengana hurbildu dezaketen elementu ekologikoak ematea; eta eraikitako hiriko espazio libreen iragazkortasuna sustatzea, klima-aldaketan arreta handia jarritz.

Bestalde, landa-ingurunearen garrantzia nabarmena da lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren esparruan erabakiak hartzerako orduan beste faktore batzuk txertatzen hasitakoan, izaera kualitatiboko faktoreak, hain zuzen. Honako alderdi hauei buruz ari gara: landa-lurzorua lurraldearen egituraren eta lurraldearen gainean oinarritzen den gizartean duen zeregina, nekazaritzak eta abeltzaintzak kalitatezko elikagaien horniduran duten garrantzi estrategikoa, paisaiaren kontserbazioa eta natura- eta kultura-ondarearen zati handi bat.

Ondare kulturalari dagokionez, lurralde legazpiarrak ondare arkeologiko eta kultural ikusgarria du, industriaurre-garaiko paisaia eta industria-garaian garatutako beste paisaia bat hartzen dituen. Azken hori hirigunearen ezaugarri nagusia da eta agertoki berezi eta erakargarria eraten du. XX. mendeko 40ko eta 50eko hamarkaden artean eraikitako langile-auzoen multzoen antolamenduak, industria-eraikuntzen presentzia izugarriak eta hirugarren sektoreko eta egoitza eraikinen zuhurtziazko antolamenduek, Legazpi industria-eremuen adibide garrantzitsuenetako bat bihurtzen dute, baita nazioartean ere.

Testuinguru horretan, Plan Orokorren helburua, antolamenduari protagonismoa ematea da, lurraldeari forma eta irakurgarritasuna ematen dion ingurumen- eta landa-sistemari esker. Horrela, zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dituzten eremuak, ingurumen-konektagarritasuna ziurtatzen duten korridoreak eta lurraldea egituratzen duen paisaia babestea lortu nahi da.

Bestalde, Plan Orokorren helburua arkitektura-, arkeologia-, historia- eta etnologia-balioak dituzten elementuen eta multzoen ondare-babesa bermatzea da, kontuan hartuta kultura-ondarearen babesa eta kontserbazioa hura osatzen duten elementu guzti-guztiak aitortzetik hasten dela. Inbentariatuta eta etengabe eguneratuta dagoenez, etengabeko diagnostikoak egin ahal izango dira esku-hartzeak optimizatzeko eta kultura-ondasunek jasaten dituzten arrisku eta afekzioen eragina murriztu, minimizatu eta deuseztatzea arte ere iristeko ekintzak egiteko.

ANTOLAMENDU-JARDUERAK ETA -IRIZPIDEAK:

- Lurraldeko azpiegitura berdea osatzen duten elementuak identifikatzea, babestea eta indartzea. Irizpideak natura-ingurunea eta tokiko nortasunak zaintzea izan behar du, natura-ondarearen eta paisaia-ondarearen elementu adierazgarriei balioa emanaz, eta, aldi berean, naturguneen eta hiri-espazioen arteko jarraitutasun ekologikoa ziurtatuz. Azpiegitura Berdea aitortzeak hiri- eta lurralde-eredu bat proiektatzea ahalbidetuko du, hiriaren eraldaketa eta hazkundera bere gain hartuta, lurralde-euskarriaren matrize biofisikoaren funtsari eustea bermatuko duena.
- Hiri- eta lurralde-antolamendua orientatzea, ibilgu naturalak eta haien babes-eremuak lehengoratzten laguntzeko, bai eta hiri-ingurunea errespetatzen duen integrazioa ere. Horretarako, espazio libreen benetako sistema bat eraikiko da, ibai-ibilguetan barrena, bizikleta- eta oinezkoentzako ibilbideez gain, hiri-eremua udalerriko natura-intereseko espazioekin, bisoi europarra kontserbatzeko eremuekin, dauden ekosistemak hobetzeko eremuekin eta kontserbaziorako baso-eremuekin artikulatuko duena.
- Landa-lurzoruaren jarraitutasuna kontserbatzea eta bermatzea, nekazaritza-ustategien iraunkortasuna bultzatzeaz gain, aldi berean, haien kultura-, paisaia, ekonomia- eta ingurumen-balioak zainduz.
- Landa-ingurunean paisaiaren kalitatea zaintzea eta hiri- eta landa-trantsizioko zonan hobetzea. Bereziki azpimarratuko da hiri-paisaien kualifikazioa: ikusmen-inpaktuak arinduz joango diren hirirako sarbideak, horiek kualifikatuko dituzten elementuak sartuz; eta hiri-esku-hartze berriak, hiri-paisaia garaikideak diseinatzeko aukera gisa baliatuak, beren espazioetan paisaia-kalitatea dutenak, eta, aldi berean, lotura fisiko eta bisual ona dutenak inguruko ikusmen-mugarri nagusiekin.
- Lurzoru urbanizaezinaren erabileren, eraikuntzen eta banaketa eta bereizketen erregulazio argia eratzea, bereziki, baserriena eta horien jabetzena.
- Ibilbide berdeak, oinezkoentzako ibilbideak eta bizikletentzako ibilbideak txertatzea eta indartzea, naturaren, hiri-ingurunearen eta landa-ingurunearen arteko harreman-tresna gisa, eta kultura- eta natura-ondarea indartzeko modu gisa.
- Aztarnategiak babesteko eta balioesteko eredu bat sortzea ahalbidetuko duten beharrezko baliabideak ezartzea, ondare arkeologikoari dagokionez.
- Jendearentzat irekitzea, Legazpiko lurraldeko kultura- eta arkeologia-ondarea irisgarri egitea eta haren balioa nabarmentzea, ondare hori funtsezkoa baita horri berari balioa emateko.
- Bereziki aintzat hartzea tokiko kultura tradizionalaren alderdi material, sozial eta espiritualen adierazgarri diren edo izan diren erabilerak eta jarduerak. Baita ere, aintzat hartzea, hondakin fisiko identifikagarriak utzi dituztenak eta ondasun higiezinak zein higigarriak izan direnak. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerekin lotutakoak dira: baserriak, burdinolak eta errotak, edozein babes-maila dutela ere.
- Urola ibaiari balioa ematea, Legazpiko lurralde-paisaia biltzen duen lotura edo elementua izan dadin.
- “2014an onartutako Legazpiko Ondare Urbanistiko Katalogatua Babesteko eta Kontserbatzeko Plan Bereziak egindako ondasun babestuen katalogoa eguneratzea eta

normalizatzea, argi eta garbi zehaztuz oinarritzko babesaren araubidearen mende dagoen ondare arkitektonikoa eta udalaren babesaren mende dagoena, eta erabilera eta obren araubidea argituz, bereziki langileen auzoetan, birgaitzeko esku-hartzearen alde egiteko.

- Bertako biztanleen eta natura- eta hiri-ingurunearen ohiko jardueren garapena errespetatzen duten turismo-erabilerak bultzatu eta horiek bultzatuko dituzten neurriak aintzat hartzea.



4º. HELBURU ESTRATEGIKOA

Lurralde jasangarri eta energetiko eraginkorra bultzatzea

Legazpik urteak daramatza ingurumenaren kalitatea eta lurraldearen iraunkortasuna hobetzera bideratutako politiken alde. Hala eta guztiz ere, prozesu hori etengabeko lana da, eta etengabe eguneratu eta fronte berriak ireki behar dira, hori hobetu dadin. Tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko agentziek 2030 Agendarekin eta GJHeekin klima-aldaketaren aurka eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren alde borrokatzeko ezarritako jarraibideak dira hiri-eredu eta komunitate jasangarri berri baten estrategiak hartzeko aterkia.

Mugikortasunera, eraikinen eta udal-zerbitzuen energia-eskarira, ur-kontsumora eta haren tratamendura, ingurumen-inpaktuetara (hala nola zaratarra eta beste emisio batzuetara) bideratutako baliabideak plangintzak eragin ditzakeen askotariko fronteen adibide dira.

Garatzen ari diren ekintzen ildotik, HAPO berrian kontuan hartu beharreko helburuetako bat baliabideak eraginkortasunez kudeatzea da, emisioetan hiri neutroa eta energia eta elikadurari dagokienez autohornikuntza lortzeko. Planak nahitaez lortu behar dituen beste helburu batzuk hauek dira: klima-aldaketaren ondorioetarako eta hura prebenitzeko egokia den hiri- eta lurralde-eredu bat ezartzea; eta mugikortasun iraunkorra sustatzea, mugikortasun-beharrak murriztuz eta mugikortasun motorizatua garraio publikoaren eraginkortasuna hobetzearekin batera bultzatuz.

ANTOLAMENDU-JARDUERAK ETA -IRIZPIDEAK:

- Arrisku naturalen aurreko prebentzioari erantzuten dion antolamendu-eredu bat garatzea.
- Antolamendu xehatuko planak eta urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuak ingurumen-ondorioak kontuan hartuta egiten direla ziurtatzea.
- Hiriguneetan energia-eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarriaren handipena lortzea. Horretarako, lehendik dauden eraikinetan energia berriztagarrien instalazioak edo gailu bioklimatikoak ezartzea erraztuko duten neurriak sartuko dira Planaren araudian.
- Planaren araudian bitartekoak ezartzea, argi-kutsadurak, kutsadura atmosferikoak, zaratak edo hondakinek eragindako inpaktu negatiboak saihesteko, konpentsatzeko edo arintzeko.
- Ekonomia berde zirkularra bultzatzea, hondakinen kudeaketa egokia eta materialen berrerabilera lortzeko neurriak ezarri eta azpiegituren kontrol eta efizientzia sistemak ezartzera behartuz.
- Mantentze-kostu txikiko espazio publikoen diseinua sustatzea, tokiko flora erabiltzeari lehentasuna emanaz eta ureztatzearen eta mantentzearen arloan aurrezteko estrategiak ezarri.

- Hirigunean sortutako hondakin-uren arazketa, birziklapena eta berrerabilpena ziurtatzea.
- HAPOn araudi bat sartzea, eraiki berri den metro koadroko zuhaitzen estandarra ezartzeko, lurzatiek orube izaera izan dezaten.
- Udalak argiteria publikoari dagokionez energia-eraginkortasunaren arloan aspalditik hartutako neurriei jarraipena ematea.
- Mugikortasun iraunkorraren, trinkotasunaren eta dibertsifikazio funtzionalaren eskakizunak bilduko dituen lurralde-eraginkortasuneko irizpide bat hartzea, automobilaren mendeko espazioen hedapena saihestuz eta hiria garraio-sare publiko eraginkor eta jasangarri baterako prestatuz.
- Espazio publikoa erabiltzeko irizpidetzat mugikortasun jasangarriko moduak lehenestea, auzoetako espazio publikoa berreskuratzeko ekintzak berariaz ezarrita, tokiko mugikortasun-estrategia gisa hartuz. Era berean, batez ere oinezkoentzako sarera bideratu beharreko espazio publikoaren azalera handituko da (Laubideko eta Hirigune Historikoko adibideak beste auzo batzuetara zabaltzea), hiriko eremu guztiak lotuko dituen oinarrizko oinezkoentzako sare irisgarri bat zehazteko. Lehenetsunez, beste mugikortasun mota batzuekin lotutako oinezkoen ibilbideak diseinatuko lirateke, erabat bereizitako oinezkoen ibilbideak saihestuz.
- Aparkalekuen arloan, honako helburu hauek dituzten ekintzak garatzea proposatzen da:
 - Intermodalitatea sustatzea, ibilgailu motordunentzako garraiobide-trukerako puntuen eta disuasio-aparkalekuen sare bat sortuz hiri-koroan kokatuta, mugikortasun publiko kolektiboko eta industriako puntuen ondoan.
 - Leku eta eraikin interesgarrietatik hurbil aparkaleku irisgarriak jartzen saiatzea.
 - Espazio pribatuetan aparkaleku-erreserbak sustatzea, espazio publikoa okupatu beharrean.
 - Bide publikoan bizikleten aparkalekuak hobetzea, baita estalita edo itxita ere.
- Mugikortasunak sortutako kutsadura murriztea, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko otsailaren 22ko 10/2019 Legearen eskakizunen arabera.
- Bide-ardatz berri bat eratzea, A-636 errepidetik herriguneko irisgarritasun- eta mugikortasun-sistema eraldatzeko. "Bide pareta" sortu, Urola kalearen paraleloan joango dena, Lanaren hiribideraino, eta hiriguneko sarbidea eta irteera Elbarreneko industria-ingurunetik eraldatzeko aukera emango duena. Ingurune horretan dauden industriek osatzen duten eszena birkualifikatu ahal izango da. Antolamendu-eredu berria eratzeko proposamen estrategikoa da hori, eta, bertan bizi ez diren ibilgailuen trafikoa herrigunetik bideratzeko bide-ardatzen sare nagusi bat diseinatzearekin batera, udal-mugikortasuneko sistema berri bat sortzea ekarriko du, jasangarriagoa, seguruagoa eta inklusiboagoa



5º. HELBURU ESTRATEGIKOA

Legazpi pertsona guztiena eta guztientzat izan dadin bultzatzea (zeharkako helburua).

Zeharkako helburuek, izaera urbanistiko espezifikorik izan gabe, lurraldean ere eragina duten gaiak dira. Irisgarritasun unibertsalaren, genero-ikuspegiaren, klima-aldaketaren, osasunaren, euskararen eta gobernantzaren kasua da. Gai horiek aurreko helburuen definizioa bideratu behar dute, herritarren bizi-kalitatea oro har hobetzeko.

Helburu horiek hiri-antolamenduan sartzeko bere zailtasunak ditu, baina Planaren dokumentua idazteko oinarri izango dira.

ANTOLAMENDU-JARDUERAK ETA -IRIZPIDEAK:

- Osasuna hobetzea:
 - Espazio libreen sistema orokorren egungo estandarra handituko da.
 - Etxebizitzaren kalitatea hobetzeko mekanismoak ezarriko dira, bizigarritasun-baldintzak medio.
- Irisgarritasuna eta genero-ikuspegia txertatzea
 - Espazio publiko seguruak, irisgarriak eta atseginak bermatuko dira.
 - Bizitza eta jarduera sozial eta komertziala duten kaleak sustatuko dira.
 - Ekipamendu publiko irisgarrien eskaintza optimoa bermatuko da, bai erabilerengatik, bai lurralde-banaketagatik.
 - Detektatutako puntu beltzak kentzea.
- Ingurumen-kalitatea hobetzea.
 - Inpaktu akustikoak murriztea.
 - Airearen kalitatea hobetzea.
 - Hiri-bilbean integratutako berdeguneak izatea.
- Kultura-ondareari balioa ematea, bai eraikiari bai ondare ez-materialari, bertako biztanleen nortasun-ikur gisa.
- Euskara: Plan Orokorraren hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egingo da eta ondorioak bertan sartuko dira.
- Hiri parekidea, justua eta bidezkoa
 - Energia garbia, eskuragarria eta segurua.
 - Auzoak berronertzea, desberdintasunen aurka borrokatzeko.
- Gobernantza: Udalak gardentasun informatiboa eta herritarren parte-hartzea egotea bermatuko du hirigintza-prozesuetan eta plangintzaren aldaketetan.



**LEGAZPIKO
UDALA**

TERRITORIO  CIUDAD SLP
TAPER